

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2011ko EKAINAREN 21ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko ekainaren 21ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.45 orduetan, Xabier Mujika Pagola Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Igor Barandiaran
Gotzon Jauregi
Imanol Aranzabal
Karlos Irazu
Aritz Usandizaga
Jon Tejeria

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1.- Udalbatzarreko batzarraldien maiztasuna onestu.
- 2.-Batzorde informatzaile iraunkorrak eratu eta osatu
- 3.-Korporazioak ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatueterako ordezkariak izendatu.
- 4.- Alkateordea eta batzorde informatzailetako lehendakariak izendatzeko alkate jaunak hartutako ebazpenen ezagutzea.


..//...

LEHENENGO PUNTUA

UDALBATZARREKO BATZARRALDIEN MAIZTASUNA

Udal behin-behineko Idazkariak, Alkate jaunak agindurik, Entitate Lokaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 38 eta 78.artikuluen berri ematen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.-Udal Osoko batzarraldi arruntak hileko aurreneko ostegunean, iluntzeko 19.30etan egitea, eta jaia tokatuko balitz, laneguna den hurrengo ostegunean.

BIGARREN PUNTUA

BATZORDE IRAUNKOR INFORMATZAILEAK ERATU ETA OSATU

Entitate Lokaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 38.artikuluaren arabera, Alkate jaunak proposaturik, Udalbatzak, aho batez, ondoren aipatzen diren Batzorde Iraunkor Informatzaileak eratzea erabakitzen du, ondorengo zinegotziak osatzen dituztelarik:

☞ Kultura eta Kirola batzordea:

Imanol Aranzabal, Igor Barandiaran eta Aritz Usandizaga
Batzordeburu: Imanol Aranzabal.

☞ Sanitate eta Ongizate Batzordea:

Igor Barandiaran, Xabier Mujika eta Jon Tejeria
Batzordeburu: Igor Barandiaran

☞ Hirigintza, Obra, Ingurune eta Nekazaritza Batzordea:

Xabier Mujika, Aritz Usandizaga eta Gotzon Jauregi
Batzordeburu: Xabier Mujika.

☞ Ogasuna, Pertsonala eta Barne Antolamendu Batzordea:

Jon Tejeria, Igor Barandiaran eta Imanol Aranzabal
Batzordeburu: Jon Tejeria.

☞ Kontuetako Batzorde Berezia:


Gotzon Jauregi, Karlos Irazu eta Aritz Usandizaga
Batzordeburu: Gotzon Jauregi

☞ Hezkuntza Batzordea:

Karlos Irazu, Xabier Mujika eta Imanol Aranzabal
Batzordeburu: Karlos Irazu.

HIRUGARREN PUNTUA

**KORPORAZIOAK ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO
KOLEJIATU GUZIETARAKO ORDEZKARIAK IZENDATU**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Une honetan, indarrean dagoen legedia betez, Udalbatzak, aho batez, jarraian aipatzen diren organo kolegiaturentzat ondorengo ordezkariak izendatzea erabakitzen du:

Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea:

Titularra: Xabier Mujika Pagola

Ordezkoa: Jon Tejeria Otermin

Tolosako Hiltegi Mankomunitatea:

Titularra: Jon Tejeria Otermin

Ordezkoa: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:

Titularra: Xabier Mujika Pagola

Ordezkoa: Gotzon Jauregi Sarasola

Tolosaldea Garatzen:

Titularra: Xabier Mujika Pagola

Ordezkoa: Aritz Usandizaga Larrañaga

Apatta-erreaka industrigunea:

Titularra: Xabier Mujika Pagola

Ordezkoa: Aritz Usandizaga Larrañaga

Tolosaldea Tour:

Titularra: Karlos Irazu Muñoa

Ordezkoa: Jon Tejeria Otermin

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:

Titularra: Imanol Aranzabal Lasa

Ordezkoa: Gotzon Jauregi Sarasola

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna- Aiurri Aldizkaria:

Titularra: Karlos Irazu Muñoa

Ordezkoa: Jon Tejeria Otermin

Aiztondo Gizarte Zerbitzu Elkartea:


Titularra: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Ordezkoa: Xabier Mujika Pagola

Ernoiozaleak Elkartea:

Titularra: Aritz Usandizaga Larrañaga

Ordezkoa: Gotzon Jauregi Larrañaga



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Herri Txikiak

Titularra: Xabier Mujika Pagola
Ordezkoa: Imanol Aranzabal Lasa

Agenda 21

Titularra: Xabier Mujika Pagola
Ordezkoa: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Pello Errota Eskola

Puntu honetan, Karlos Irazu zinegotziak bere burua aurkezten du Elkarte honetako Udal ordezkari titularra izateko.

Ondoren Xabier Mujika Alkateak Karlos Irazu zinegotziari esaten dio nahiago duela bera ez bada elkarte honetako Udal ordezkaria, bertan, Udal Ordezkaria ez, baizik eta guraso elkarteko ordezkari gisa indentifikatzen dutelako.

Segidan Karlos Irazu zinegotziak azaltzen du azken hiru urtetan bera izan dela Elkarte horretako Udal ordezkaria eta ez duela ulertzen orain bera ez izateko nahia.

Beste boluntariorik aurkezten ez denez Pello Errota Eskolako ordezkaria izateko Xabier Mujika Alkateak bere burua aurkezten du bertako ordezkari titularra izateko.

Batzarkideen artean adostasunik ez dagoenez Pello Errota Eskolako ordezkari titularra izendatzeko, bi hautagai daudelako, bozketa egiten da, ondorengoa delarik emaitza.

Xabier Mujika Pagola: 4 boto

Karlos Irazu Muñoa: 3 boto

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Pello Errota Eskolako ordezkari titularra Xabier Mujika Pagola alkatea izendatzen da.


Karlos Irazu Muñoa zinegotziak argi utzi nahi du bera Pello Errota Eskolako ordezkari titularra izendatzeko boluntario gisa aurkeztu dela, beste elkarteen ordezkarien aukeraketa sistema berdina erabiliz. Eta Kasu konkretu honetan bozketara joan behar izan dela orain arte jarraitutako aukeraketa sistema alde batera utziz.

Titularra: Xabier Mujika Pagola
Ordezkoa: Gotzon Jauregi Sarasola

Larraulgo Kultur batzordea

Titularra: Imanol Aranzabal Lasa
Ordezkoa: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

LAUGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

***ALKATEORDEA IZENDATZEKO ALKATE JAUNAK HARTUTAKO
EBAZPENEN EZAGUTZEA***

Alkate jaunak hitza hartzen du Alkateorde izendatzeko ebazpenik ez duela luzatu adierazteko, baina une honetan Igor Barandiaran Perez de Arriluzea zinegotzia udal Alkateorde izendatzen duela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.